

V. JAUTARKOL OLERKI SARIA

V. JAUTARKOL OLERKI SARIA lehiaketako epaimahaia 2001eko ekainaren 8an elkartu zen San Markos gotorlekuan aurtengo irabazleak nortzuk izango ziren eztabaidatzeko.

Epaimahaia honako hauek osatu zuten:

Felipe Juaristi Galdos
Patxi Apalategi Mendizabal
Juan Cruz Igerabide Sarasola

Eta V. JAUTARKOL OLERKI SARIA lehiaketaren emaitza honako hau izan zen:

LEHENEGO SARIA:
BIGARREN SARIA:
ERRENTERIAKO ONENA:

Oier Gillan Bermudez
Fernando Morillo Grande
Oier Gillan Bermudez

LEHENEGO SARIA eta
 ERRENTERIAKO ONENARI SARIA:
Oier Gillan Bermudez
 HERRIA: Errenteria
 JAIOTZE DATA: 1975



ZERU ZATI BAT (Lau hormen artean)

I.

Euria
 denborarik gabeko
 zirrikitueta abaildu zen

azalean
 murgildurik
 estreinakoz
 barnea kanpoan
 azaldu da

II.

Esku dardartiez
 itxi zuen atea
 atea isterakoan
 mundu bat irekitzen zela
 sumatu zuen
 bere bizitzan lehenbiziko aldiz
 balkoi azpian jendeak
 eguneko azken urratsak zenbatzen zituen
 farolak bero ziren
 esku dardartiez
 erantzi zion arropa
 arropa erantztean
 mundu bat irekitzen zela
 sumatu zuen
 bere bizitzan lehenbiziko aldiz

IV.

Gaua lehiotik irten da
 goizaren ferekak bildu ditu
 gorputz abailduen dardarak

 (bildu da orbela bere baitan
 isiltasunak argia ekidin du
 ez dago denbora baino gauza tristeagorik)

 Gaua leihotik irten da
 izarek azken hitzak laga dituzte
 orbainetan
 bizitzaren haria galdu da
 izenik gabeko itzalen
 azken barbaroan

III.

Azalean
 sentimendu atzemanezina
 bizitzaren haria
 ezpainetatik zintzilik
 isiltasuna besarkatu
 azalean
 begiradak ferekatu nahi
 lituzketen hatzak
 puntuazio
 markarik gabeko
 esaldiak izkiriatu nahi
 lituzketen hatzak

Gaua galdu da

Biharamuna kalera
 irten da
 zentzurik gabeko
 bideetara

Gaua galdu da

V.

Maitasunezko istoriorik ederrena
 Egiatan gertatzen dena da

“KUKUMIKU”

BIGARREN SARIA:
Fernando Morillo Grande
HERRIA: Azpeitia
JAIOTZE DATA: 1974



EZ-EGIA

Badakit
zure begiradari
-zeruertz ilunetan trabatzen den horietan-
lo egin ezin dutenen negarra
dariola
-ezkutatu nahian zabiltzan arren-
Badakit
beste zerbait gura zenukeela
zurrumbilo dongeak, ekaitzak, grina hilgarriak
film guztien kimera guztiak
Ezagutzen ez ditudan hodeiertzak irudika-
tzen dira
zure begiradan
-eta urrun sentitzen naiz-
besterik nahiko zenukeelako
zer
ez dakizun arren
jaiki, autobusa, lana
autobusa, etxera itzuli, larrua jo, lo
jaiki, autobusa, lana,
autobusa, etxera itzuli, larrua jo, lo
estoldak nonahi
ohikeriak ez dizu su etenik eskaintzen
hegan ezin eginagatik
sukar hutsalak joa zaudela diozu
Ez ezazu hitzik egin, arren
ez esan ezer
badakit -zure erara- maite nauzula
nahiko nuke
nik nahiko nuke zure ezinezkotasuna izan
urrun beharrean
nigan trabatu zaitezen
Baina ez
hitz egin iezadazu
esadazu gezurra
gure aurpegiak gertuen daudenean
begira iezadazu
eta zure sekretu faltsua aitor
-gezurretan bada ere-
nirea zarela esadazu

ez dagoela -inon- inor
gezurretan bederen
Sinetsi nahiko nuke
sinetsi
mundua gure sormen propioa dela
-solipsismo hutsean amildu-
gure mundua guk geuk sortzen dugula
-Fichte paranoiak jasan-
dena gure esku dagoela
-Nietzsche ajeak-
gure
mundu guztietan hoberena dela
-badira munduan Leibniz-ak hori diotenak-
Zuhaitzak ikusten ditut, ordea
euren adar arreetatik zintzilik
kulunka
hamaika urkatu
eta enbataren aurrerakina
begiradan -zurean-
Eta dena
ez-egia bihurtzen da
eta beldurra bakardade
zu
ni
naizen horietan
Barre egiten dut
ispiluaren aurrean

“AJEAK”